

AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAKO MERKATARITZA-INDIZEA. 2025EKO URRIA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,1 jaitsi dira 2025eko urrian


Aurreko hilabetearekin alderatuta, salmentek % 1,2 egin dute behera

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,1 txikitu dira aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak zuzendu ondoren.

Aurreko hilabetearekin (2025eko iraila) alderatuta, prezio konstanteetako salmentak % 1,2 jaitsi dira, dagozkien urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteetan



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Salmenten urtez urteko bilakaera positiboa izan da *Gainerako produktuak* sektorean, % 0,1eko igoera izan baita. Aldiz, *Elikadura* sektorean, salmentak % 0,2 murriztu dira 2024ko urriarekin alderatuta.

Hilabete arteko datuei dagokienez (2025eko urria 2025eko irailarekiko), bilakaera negatiboa izan da, bai *Elikagaiak* sektorean (% 1,4ko jaitsierarekin), bai *Gainerako produktuak* sektorean (% 0,9ko jaitsierarekin).

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Urria 2025

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,1	-1,2	0,6
Araba/Álava	-1,1	-0,8	-0,3
Bizkaia	0,1	-1,3	1,2
Gipuzkoa	0,1	-1,2	0,0
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	-0,2	-1,4	0,5
Gainerako produktuak	0,1	-0,9	0,8
Enplegu-indizea			
Euskal AE	-0,3	-1,4	1,5

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2025eko Azaroaren 27a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,1 hazi Bizkaian eta Gipuzkoan aurreko urteko hil berarekiko. Araban, aldiz, % 1,1 egin dute behera salmentek.

Hil arteko datuei dagokienez, salmentak % 0,8 jaitsi dira Araban, % 1,3 Bizkaian eta % 1,2 Gipuzkoan.

Urteko lehen hamar hilabeteetako metatuan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 0,6 egin dute gora 2024ko aldi metatu beraren aldean. % 1,2ra iritsi da Bizkaiaren kasuan; Gipuzkoan, urrira arteko metatua berdin mantendu da, eta Araban, berriz, % 0,3ko jaitsiera izan da.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako **langile okupatuen** kopurua % 0,3 txikitu da 2024ko urriarekin alderatuta. Hilabete arteko datuei dagokienez, langileen indizeak % 1,4 egin du gora. Urrira arteko urteko metatuan % 1,5eko hazkundera izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatu dira, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilaren indizea kalkulatu da laginaren % **93,94 kontuan izanik**.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62